

IÑAKI EIZMENDI

Iñaki Eizmendi 1952. urtean sortu zen Andoainen (Gipuzkoa) 68/69 urte ditu orain.

Hamar urterekin solfeoa ikasten hasi zen. Horren ondotik pianoa ikasi zuen hiru urtez. Gaztaroan Madrilerara jo zuen eta han irudi zientzietako ikasketak egin zituen. Madrildik bueltan Bilbon bizi izan zen hainbat urtez.

70eko hamarkadaren hasieran hasi zen jendaurrean kantatzen. Haren estiloa zubi bat izan zen Ez Dok Amairu taldearen ingurukoen eta kantari berrien artean.

1983an kantagintza utzi zuen Eizmendik.

Hortik goiti gutitan jo izan du zuzenean, ekitaldi berezietan.

Erraterako, Gu Gira jaialdian parte hartu zuen 70eko hamarkadako bertze kantari batzuekin.

Hiru disko atera zituen: Gureak ez diren kale ixileenbi milagarren samiña, Zaldi erratu hatsa etalparragirre zure oroiz (askoren artean)

Kantu ospetsuak: Ene maitea nauzu, Gure herria eta Oi nere zoragarria.

Ene maitea nauzu:

<https://www.youtube.com/watch?v=dXwvyXwJUGw&t=55s>

LETRA

Ene maitea nauzu

Bihotzetik desterratu

Nolaz jakin duzun

Hainbeste zaitudala maitatu

Eta nere suaz eta nere suaz

Minez ez zera ez zera urtu

Eta nere suaz eta nere suaz

Minez ez zera ez zera urtu

Udazkeneko lore

Lur gorri lur enantzu

Odol beroaz ote nintzen

Ene bihotz labeen sartu

Baina arratseko itzalaz

Baina arratseko itzalaz

Soil haiz bihurtu bihurtu negu

Baina arratseko itzalaz

Baina arratseko itzalaz

Soil haiz bihurtu bihurtu negu

Usteak erran zidan

Zutaz nintzela jabetu

Baina ederki didazu

Arima barruan engainatu

Ni naizelako amodioz preso

Ni naizelako amodioz preso

Hau besterik ez diat, ez diat lortu

Ni naizelako amodioz preso

Ni naizelako amodioz preso

Hau besterik ez diat, ez diat lort

Hor nabil kalean gauzez

Ilargia geroztik ahaztu

Harriei galdezka

Zure huts minaren zentzu

Eta pena egin nahiean

Eta pena egin nahiean

Ilunean nolabait nolabait goxatu

Eta pena egin nahiean

Eta pena egin nahiean

Ilunean nolabait nolabait goxatu

Egileak: Uxue Mindegia eta Ane Garaikoetxea